

BASO BABESTUA

Ane Larrañaga
Azpeitia, 13 urte

Duela urte batzuk beste zuhaitzetatik desberdintzen ziren hogeita hamarreko talde berezi bat omen zegoen Pagoetako basoan. Bereziak bai, baina ez besteak baino altuagoak zirelako, ez eta ere bere hostotza joriagatik. Esaten dutenez, gauean hitz egin eta lekutik mugi zitezkeelako baikizik.

Talde hartako gehienek berrogeita hamar eraztunetik gora zituzten beren enbor sendoetan, baina baziren bai meheagoak ere. Artalde guzietan bezala, hemen ere ba omen zen besteengandik bereizten zen Prontxio izeneko zuhaitz adintsu eta jakintsu bat.

Egun osoa liburu artean igarotzen zuen. Nork edo nork arazoren bat baldin bazuen, hosto eiharak jaio edota sasoia baino lehenago enbor-azala erortzen zitzaiolako alegia, berarengana jotzen zuen. Adinez eta jakituriaraz bera zen taldeko buruzagia. Hainbeste oldozte eta ardurengatik irailetik aurrera, beste inori baino lehen hasten zitzaizkion hostoak erortzen. Berari ordea bost hosto axola!

Baso hartan dena poza eta bakea zen. Animaliak askatasun osoan bizi ziren. Eguraldi ona egiten zuen bakoitzero, Zarauzko eta inguruko herrietako haurrez betetzen zen, eta zuhaitzak pozarren erretxina-izerditan lehertzen ziren.

Baina halako batean, gauzak aldatzen hasi ziren. Astegun batean hostotza artetik Prontxio bost gizonen presentziaz ohartu zen. Buru gaineko kaskoek eta beren keinu lotsagabeek erne ipini zuten.

Azkar baino azkarrago ulertu zituen gizon haien planak eta asmoak. Kamioi eta bulldogger-en zarak basoko lasaitasuna apurtu zuten. Kamioietatik salto egin eta klarionaz seinalatzen hasi ziren zuhaitzak. Oihu izugarriak iristen ziren basoaren beste aldetik, zuhaitzek soilik entzun eta ulertzen duten hizkuntzan. Eta apurka-apurka zuhaitzak urrituz zihoazen.

Azken motore hotsa isildu orduko, Prontxio hitzegiten hasi zen. Nabarmen zuen egun osoa prentsatzan pasa zuela, hosto bakan batzuk baino ez baitzituen adarretatik dilindan.

– Zerbait egin beharra dago! Ezin gara adarrak gurutzatuta guri txanda noiz iritsiko zain geratu. Eta isiltasuna izan zen entzun zen erantzun bakarra.

– Zer egin dezakegu ordea? -galdetu zuen inoiz kolpe zorrik jo ez zuen Abraham gazteak.

– Hori denon artean pentsatu beharreko gauza da -moztu zion Prontxiok haserre. –Bihar larunbata da; eta etzi, igandea. Gizakiek jai egiten dute bi egun horietan. Beraz, bi eguneko epea dugu. Eta Prontxiok bizkarra eman eta bilera amaitutzat eman zuen.

Larunbatean inoiz baino jendetza gehiago bildu zen Pagoetako zelai eta basoetan. Eguraldi ederra egin zuen. Eta azken autoek aldegin zutenean Prontxio hitzegiten hasi zen.

– Lehenik barkamena eskatu nahi diot Abraham gazteari. Gaztetan neu ere horrelakoxea nintzen, txoriburu eta axolagabea.

Prontxioren aipamenak gaztea gorri-gorri jar-tzea lortu zuen.

– Arrazoi duzu Prontxio -aurreratu zen Xepo langilea. –Beti zugan uzten ditugu ardurak, arazoa gurea ez balitz bezala.

– Inork ba al du ideiarik? -jarraitu zuen Prontxiok.

– Nik proposamen bat daukat. Gizakiekin hitze-gin beharko genuke, beren eskuetan baikaude.

– Ez dago gaizki Abraham. Baina besteen ideiak ere entzutea gustatuko litzaidake.

Banaka-banaka denek beren iritziak azaldu zituzten, ezinezkoak batzuk, inozoak beste batzuk...

– Abrahamen proposamena iruditzen zait zentzuzkoena. Baina denok hartu beharreko erabakia denez, konforme ez dagoenak eman dezala pauso bat aurrera -jarraitu zuen Prontxiok.

Halako isiltasuna egin zen, ezen haizearen lazta-na hostoengan entzun zitekeela.

– Zorionak Abraham! -poztu zen Prontxio. –Nik uste baino azkarragoa izan zara.

Abrahamen semaforoak gorrian zirudien.

– Orain gure nahia gizakiei nola azaldu erabakitzea geratzen zaigu -jarraitu zuen Prontxio berri-tsuak. –Berandutu zaigu, eta egokiena bakoitzak bere burari kontsulta egitea izango du gaur gaue-an. Bihar igandea da, eta gaurko ordu berean bil-duko gara. Gaia garrantzitsua denez inor ez dadila berandu etorri.

Hurrengo eguna udaberriko egun eguzkitsu eta alai tipiko eta topikoa suertatu zen. Eta autoek umeen azken oihuak eraman zituztenean...

– Gaurko bilera badakizue zertarako den, giza-
kiekin elkarrizketa prestatzeko -gogorarazi zien
Prontxiok. –Inork ba al du esatekorik? -eta Abrahan
gazteari begiratu zion inongo disimulurik gabe.

Abrahan gazteari bat-batean hostoak gorritu zi-
tzaizkion.

– Abrahan, ezer esatekorik baduzu orain da
garaia -animatu zuen Prontxio jakintsuak.

Eztarria marrantatu eta...

– Nire plana burutzeko Antxi irrintzilariaren
laguntza ezinbestekoa dugu. Bihar, langileak iris-
ten direnean Antxik irrintzi batez bere arreta bildu
behar du. Eta hurbiltzen zaizkigunean bil-bil egin
eta inguratuko ditugu. Honela, denbora aukera
izanen dugu hitzegin eta konbentzitzeko.

Ustekabean Prontxio bere adarrak astindu eta
txaloka hasi zen. Besteek ere, Prontxioren jokaera-
ri jarraiki, bakarka hasieran, eta tropelean gerora,
adarrak astintzeari ekin zioten.

– Argi dago Abrahan gazteak denbora gutxian
asko ikasi duela. Eta laster berari eman beharko
diogula taldeko gidaritza -egin zuen irribarre
Prontxiok.

– Hemen egon baldin bagaude... -ihes egin zion
hosto artetik ironiaz Joxin petralari.

– Joxin! -oihu egin zuen Prontxiok haserre. Ezer
hobeago esatekorik ez baduzu, zaude isilik! Lehen
ere badugu nahiko mainatirik!

Bat-batean udaberriko baso jori eta berde hura, udazkeneko baso arre eta isil bilakatu zen.

– Ez zaitezte horrela jarri eta alai hostoak. Badugu bai oraindik zer eginik eta.

Eta hala kontu-kontari gauerdia iritsi zitzaien lo hartu zutenerako. Eta hurrengo goizean ilargiak eguzkiari “esnatzeko ordua” esan zionean oraindik lo zirauten zuhaitzek, insomnioak jota zebilen Prontxiok izan ezik.

Egunsentia urratu eta aurreneko orduetan hasi zen iskanbila Pagoetan. Kamioa eta “buldogger” armada izugarri bat gudara bailihoan azaldu zen errepidetik gora, burrundara batean. Zalaparta harekin ez zen erraza urduri ez egotea.

Aurreko egunean erabaki bezala irrintzi ikaragarri batek zeharkatu zuen zerua, mingarri. Oihu hark harri eta zur utzi zuen langile taldea, oinak lurrera itsatsita. Taldeburu zirudiena soilik mugitu zen eta basoan barneratu.

Ez dakigu zehatz-mehatz zer gertatu zen hurrengo ordu betean. Dakigun bakarra zera da, ordu bete igaroz gero, pauso bizkorrez agertu izan zela nagusia, eta erretiratzeko agindua eman ez autora igo eta aldegin zutela.

Eta gaur da hamargarren urteurrena Pagoetako basoa “Baso babestua” izendatu zutela, non animaliak, landareak eta aste bukaerako haur eta heldu bakean elkarbizitzen diren. Eta noizbait, Pagoetara gauetz joaten bazara, eta haize eta hosto firfira entzun, kontuan eduki Prontxio eta bere taldea ziu-rrenik begira izango dituzula.